6. puntuan adierazi diren dokumentuez gain, diru-laguntza ildo honetako eskaerak prestatu den inprimaki ofizialean (inprimakia Agorrosin Ekintza Gunean edota www.bergara.net helbidean egongo da) aurkeztu beharko dira, ondorengo dokumentazioarekin batera:

a. Jardueraren kirol-egitasmoa. Zehaztu beharko da jarduera non egingo den, eguna eta ordua, erabiliko diren material baliabideak eta udal material baliabiderik erabili behar den, beharrezkoak diren udal instalazioak, aurreikusitako parte hartzaile kopurua eta jarduerari buruzko lagungarri gerta daitekeen bestelako argibideak.

b. Jardueraren aurrekontu ekonomikoa. Atal honetan zehaztu beharko dira aurreikusten diren gastuak eta irteerak, udalari eskatzen zaion diru-laguntza zenbatekoa eta ekintzaren balantze ekonomikoa.

10. *Kirol entitateen izaera berezi edo/eta noizean behingo kirol-jarduerak antolatzeko diru-laguntzarako irizpideak.*

Bergarako Udal Kirol Batzordeak urte horretako eskaera guztiak aztertuko ditu. Beharrezkoa izan daitezkeen kasuetan, eta izaera bereziko jardueren konplexutasuna dela-eta, hainbat kirol entitateri argibide eta agiri gehiago eskatzeko aukera izango du. Azterketa ostean, jarduera bakoitzerako urteko dirupartidaren araberako banaketa egingo du.

4. KAPITULUA

APLIKAZIO OROKORREKO BESTE PUNTU BATZUK

11. *Eskaerak aurkezteko agirien prozedurari buruz.*

— Eskaera aurkezteak esan nahi du eskatzaileak oinarri hauetan ezarritako baldintzak bere horretan onartzen dituela.

— Eskatutako dokumenturen bat jadanik Bergarako Udalaren esku balego, diru-laguntzaren eskatzaileak ez du dokumentu hori aurkeztu beharrik izango, betiere eskaeran adierazten bada zein egunetan aurkeztu zen eta zein organori edo zein bulegotan izan zen, eta ez badira bost urte baino gehiago igaro dagokien prozedura bukatu zenetik. Hala ere,

7. A cada entidad que tenga un equipo compitiendo en liga regular autonómica ó superior se otorgarán 40 puntos por cada equipo.

El valor del punto se calculará así: Se sumarán todos los puntos conseguidos por las entidades deportivas, y se dividirá la cantidad económica aprobada en el presupuesto municipal (60.000 €) entre el resultado de esa suma.

A continuación, para calcular la cantidad correspondiente a cada entidad, se multiplicará el valor del punto por los puntos obtenidos.

CAPÍTULO 3

SUBVENCIÓN PARA LA ORGANIZACIÓN DE ACTIVIDADES DEPORTIVAS DE CARÁCTER EXTRAORDINARIO Y/U OCASIONAL POR PARTE DE LAS ENTIDADES DEPORTIVAS

9. Documentación a presentar para la solicitud de subvenciones destinadas a la organización de actividades deportivas de carácter extraordinario y/o ocasional por parte de las entidades deportivas.

Además de la documentación recogida en el punto 6, las solicitudes para esta modalidad de subvención se deberán presentar en el impreso oficial dispuesto para tal fin (disponible en Agorrosin Ekintza Gunea o en www.bergara.net), junto con la siguiente documentación:

a. Proyecto deportivo de la actividad. Se deberán detallar: El día, hora y lugar donde se desarrollará la actividad, los recursos materiales que se utilizarán y si se precisan recursos materiales municipales, las instalaciones municipales necesarias, el número previsto de participantes, y cualquier otra información sobre la actividad que sirva de ayuda.

b. Presupuesto económico de la actividad. En este apartado se detallarán los gastos y salidas previstos, la cantidad que se solicita al Ayuntamiento y el balance económico de la actividad.

10. *Criterios para la concesión de las subvenciones destinadas a la organización de actividades deportivas de carácter extraordinario y/o ocasional por parte de las entidades deportivas.*

La comisión municipal de Deportes estudiará todas las solicitudes del año. En los casos en los que se considere necesario, por la complejidad de las actividades de carácter extraordinario la comisión podrá solicitar información y documentación adicional a las entidades deportivas. Una vez estudiadas las solicitudes, realizará la distribución para cada actividad en función de la partida económica de ese ejercicio.

CAPÍTULO 4

OTROS ASPECTOS DE APLICACIÓN GENERAL

11. *Sobre el procedimiento de los documentos para la presentación de solicitudes.*

— La presentación de la solicitud implica la aceptación íntegra por parte de la persona solicitante de las condiciones establecidas en las presentes bases.

— En caso de que alguno de los documentos requeridos ya obrara en poder del Ayuntamiento de Bergara, la persona solicitante no tendrá que presentarlo de nuevo, siempre que indique en la solicitud en qué fecha lo presento, ante qué órgano o negociado, y que no hayan transcurrido más de cinco años desde el final del procedimiento. Con todo, en caso de resultar material-

dokumentua lortzeko ezintasun materiala balego, organo eskudunak dokumentua erabaki-proposamenaren formulazioa baino lehen aurkezteko eska dezake.

12. *Eskaerak aurkezteko epea.*

Eskaerak asteleheneretik ostiralera 9:00etatik 13:00era, aurkeztu ahal izango dira, Udaletxeko Erregistro Orokorrean, oinarri hauek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen diren egunetik kontatzen hasita 30 eguneko epean.

Eskaerak aurkezteko epea larunbat, igande edo jaiegunean amaituko balitz, epea ondorengo laneguneko 13:00ean bukatzen dela ulertuko da.

13. *Erabakia.*

Eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren, eskaerak Udaleko Kirol batzordeak aztertuko ditu. Eskaeran akatsak daudenean edota agiriren bat falta denean, jakinarazpen bat egingo zaio, esanez 10 eguneko epea duela, jakinarazpena egiten zaionetik kontatzen hasita, falta den agiria aurkeztu edota akatsa konpontzeko. Horrela egingo ez balu, diru-laguntza eskaeran atzera egin duela ulertu eta artxibatu egingo da beste tramiterik gabe, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, bere 71.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Azkenik, Departamentuak txosten teknikoa egin ondoren, Kirol batzordeak diru-laguntzak emateko proposamena egingo dio Alkateari, hark erabakia har dezan.

Erabakia eskaerak aurkezteko epea bukatu eta, gehienez, hiru hilabeteko epean eman beharko da.

Hiru hilabeteko epe hori igaro ondoren, Udalak eskaeraren baten gainean erabakirik hartu ez badu, eskaera ez dela onartu ulertu ahal da.

Udalak, batzorde informatzailearen bitartez, beharrezko deritzon informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du erabaki-proposamena formulatu aurretik.

14. *Onuradunen betebeharrak.*

Onuradunaren betebeharrak honakoak dira:

a) Diru-laguntzaren arrazoi diren jarduerak egin edota helburuak betetzea.

b) Diru-laguntzaren emakida edo erabilpenerako baldintzak, jarduerak eta helburuak bete direla Bergarako Udalaren aurrean justifikatzea.

c) Indarrean den legedian xedatutakoarekin bat, Bergarako Udalak egingo dituen egiaztatze-ekintzei men egitea eta haiek egiten laguntzea, bai eta kontrol organoek egin dezaketen edozein egiaztatze- edo kontrol-ekintza erraztea. Aipatutako ekintza horiek gauzatzeko, eskatzen den informazio guztia eman beharko da.

d) Diru-laguntza jasotzeko kontuan hartu zen edozein egoera objektiboren edo subjektiboren aldaketa jakinaraztea.

e) Bergarako Udalari, berak lagundutako jarduera berberengatik jaso den, beste diru-laguntza nahiz publiko nahiz pribatuen berri ematea.

Horren berri jakin bezain laster egin beharko da komunikazio hori eta, edozein kasutan, Udaletik jasotako fondoan erabilera justifikatu aurretik.

f) Ordaindutako diru-laguntza itzultzea oinarri hauen arabera, betebeharrak hori sortzen denean.

mente imposible la obtención del documento, antes de la formulación de la propuesta de resolución el órgano competente podrá requerir la presentación del documento.

12. *Plazo para la presentación de solicitudes.*

Las solicitudes se podrán presentar de lunes a viernes, de 9:00 a 13:00 horas, en el Registro General del Ayuntamiento, en un plazo de 30 días contados a partir del de la publicación de las presentes bases en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Si el plazo de presentación de solicitudes finalizara en sábado, domingo o festivo, se entenderá que el plazo termina el siguiente día hábil a las 13:00 horas.

13. *Resolución.*

Una vez cerrado el plazo de presentación de solicitudes, la Comisión de Deportes del Ayuntamiento las estudiará. En caso de que haya errores en la solicitud o de que falte algún documento, se le notificará a la entidad, informándole que dispone de 10 días desde la fecha de la notificación para subsanar el error o presentar el documento que falte. Si no lo hiciera, se entenderá que desiste de la solicitud de subvención y se archivará sin más trámite, conforme a lo establecido en el artículo 71.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Por último, una vez que el Departamento elabore el informe técnico, la Comisión de Deportes trasladará la propuesta de concesión de subvenciones al Alcalde para su resolución.

La resolución se dictará en un plazo máximo de tres meses desde la finalización del plazo de presentación de solicitudes.

Una vez finalizado el plazo de tres meses, si el Ayuntamiento no ha adoptado resolución sobre una solicitud, se podrá entender que ha sido desestimada.

El Ayuntamiento podrá pedir toda la información complementaria que estime oportuna, por medio de la comisión informativa, antes de formular la propuesta de resolución.

14. *Obligaciones de las entidades beneficiarias.*

Las obligaciones de las entidades beneficiarias son las siguientes:

a) Realizar las actividades o cumplir los objetivos que fundamentan la concesión.

b) Justificar ante el Ayuntamiento de Bergara el cumplimiento de las condiciones, actividades y objetivos de la concesión y el uso de la subvención.

c) De acuerdo con lo dispuesto en la legislación vigente, someterse a las actuaciones de comprobación que vaya a realizar el Ayuntamiento y colaborar en ellas, facilitando así mismo cuantas actuaciones de inspección y control puedan efectuar los órganos de control. Deberá proporcionar cuanta información le sea requerida para llevar a cabo las citadas actuaciones.

d) Comunicar la modificación de cualquier circunstancia objetiva o subjetiva que influyó al obtener la subvención.

e) Poner en conocimiento del Ayuntamiento de Bergara la existencia de otras subvenciones recibidas por el mismo concepto, tanto pública como privada.

Esta comunicación se deberá de realizar tan pronto se conozca y, en todo caso, con anterioridad a la justificación del uso de los fondos concedidos por el Ayuntamiento.

f) Devolver la subvención recibida cuando proceda, de conformidad con lo dispuesto en estas bases.

g) Jasotako fondoan erabilerari buruzko egiaztagiriak, gutxienez, bost urtez gordetzea.

h) Kontabilitate liburuak, erregistro izapidetuak eta gaineko agiriak ikuskatuak izatea, kasu bakoitzari aplikatzekoa den merkataritzari eta sektoreei buruzko legedian xedatua den moduan. Halaber, diru-laguntzak arautzen dituzten oinarri hauean eskatutako kontabilitateko egoera orri eta erregistro espezifiko oro izan beharko dira egunean aurkezteko prest.

i) Udalak euskararen erabileraren inguruan ezarritako irizpideak betetzea. Diru-laguntzak jasotzen dituzten erakundeak euskarari lehentasuna eman beharko dio jardueri buruzko publikitatea egitean. Hizkuntzaren aldetik, baldintza hauek bete beharko ditu:

a. 16 urtez azpikoan entrenamendu-saio guztiak euskara hutsez izango dira. Halaber, euskaraz izango dira beraientzako idazkiak, hitzaldiak, etab

b. Mezu idatziei (kartel, iragarki, esku-programa, liburuak) dagokienez, euskaraz edo ele bitan (euskaraz eta gaztelaniaz) idatziko dira. Beti eduki beretsuak izan ohi dituztenak euskara hutsez, eta ele bietan egiten direnen kasuan, euskarari emango zaio lehentasuna, bai kokalekuaren aldetik (euskarazkoa erdarazkoaren gainean) eta bai neurriaren aldetik ere. Testuak, hizkuntza aldetik, zuzen idatzia daudela egiaztatzeko, Euskara Zerbitzura eraman beharko dira.

c. Ahozko komunikazioetan ere euskara hutsa erabiltzea joko da eta bi hizkuntzak erabili behar izanez gero, euskarari emango zaio lehentasuna erdarakoaren aurretik azalduz eta, mezua errepikatzen denean, erdarazkoa baino bi aldiz sarriago, behintzat, emanez.

j) Diruz lagundutako jarduera garatzeko beharrezko diren baimen guztiak lortzea, eta haiei dagozkien zehaztapenak betetzea.

k) Gipuzkoan, Eskola Kirolaren arloan indarrean den araudia betetzea.

l) Jarduera garatzeko orduan, pertsonen oinarrizko eskubideak errespetatzea.

m) Diruz lagundutako edozein jardueraren antolatzailek honako betekizun hauek ditu:

a. Idatziko, ahozko eta irudizko publikitatean agerraraztea Bergarako Udalaren laguntza jaso dela, Bergarako Udalaren logotipoak jarritz.

b. Idatziz Udalari jakinaraztea, ekitaldia aurkezteko prentsaurrekoaren eguna, ordua, eta lekua, eta han parte hartzeko dagokion gonbidapena egitea.

c. Idatziz Udalari jakinaraztea ekitaldiaren ordutegia, eta hara joateko dagozkion akreditazioak eta gonbidapenak bidaltzea, sariak zer ordutan banatuko diren zehaztuta.

n) Onuradunek indarrean dagoen lege araudia guztia betetzea, batez ere Emakume eta Gizonezkoen Berdintasunerako 3/2007 Legea eta baita Tabakoari buruzko 28/2005 Legea –abenduaren 26koa– ere, udal instalazioak erabiltzen direnean.

o) Oinarri hauek gainerako betekizunak betetzea; indarrean den legedian xedatu direnak; eta ebazpenen edukian ondorioz sor daitekeen edozein betekizun.

15. Diru-laguntza ordaintzeko modua.

Onartutako diru-laguntza bi ordainketa bidez egingo da.

Diru-laguntza 3.000 euro baino txikiagoa denean, diru-laguntza onartzen denetik kontatzen hasita, hilabeteko epean diru-laguntzaren %60 ordainduko da.

g) Conservar durante al menos cinco años los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos.

h) Disponer de los libros contables, registros diligenciadados y demás documentos debidamente auditados en los términos exigidos por la legislación mercantil y sectorial aplicable al beneficiario en cada caso, así como cuantos estados contables y registros específicos sean exigidos en estas bases.

i) Respetar los criterios establecidos por el Ayuntamiento en torno al uso del euskera. Las entidades que reciban subvenciones deberán dar prioridad al euskera a la hora de efectuar la publicidad de sus actividades. Respecto al idioma se deberán cumplir los siguientes requisitos:

a. Todas las sesiones de entrenamiento de menores de 16 años, así como los escritos, charlas dirigidos a ellos/as, deberán ser sólo en euskera.

b. En cuanto a los mensajes escritos (carteles, programas, anuncios, folletos) se redactarán en euskera o en bilingüe (euskera y castellano), excepto aquellos con contenido muy similar que se redactarán únicamente en euskera. En los textos en bilingüe se dará preferencia al euskera, tanto en su ubicación (situando el texto en euskera en la parte superior) como en el tamaño de los caracteres. Con la finalidad de garantizar la corrección lingüística de los textos en euskera éstos serán visados por el Servicio de Euskera de este Ayuntamiento.

c. En la comunicación hablada se tenderá también a utilizar únicamente el euskera y, en caso de ser necesaria la utilización de las dos lenguas, se dará preferencia al euskera emitiendo el mensaje en euskera antes que el de castellano y repitiéndolo al menos el doble de veces en caso de ser repetitivo.

j) Obtener todas las autorizaciones y permisos precisos para desarrollar la actividad subvencionada y cumplir todas las especificaciones correspondientes.

k) Cumplir la normativa en vigor de Deporte Escolar de Gipuzkoa.

l) Respetar los derechos básicos de las personas durante el desarrollo de la actividad.

m) El organizador de cualquier actividad subvencionada tiene las siguientes obligaciones:

a. Mostrar en toda la publicidad, tanto escrita como oral como gráfica, que ha recibido ayuda del Ayuntamiento de Bergara, insertando los logotipos del Ayuntamiento de Bergara.

b. Comunicar al Ayuntamiento por escrito el día, hora y lugar de la rueda de prensa de la presentación de la actividad, con la correspondiente invitación al acto.

c. Comunicar al Ayuntamiento por escrito el horario de la actividad y enviar las acreditaciones e invitaciones necesarias, concretando la hora de la entrega de premios.

n) Cumplir con todas las leyes en vigor, especialmente con la Ley 3/2007 de Igualdad de Mujeres y Hombres y, cuando se utilicen las instalaciones municipales, con la Ley 28/2005, de 26 de diciembre, referente al tabaco.

o) Cumplir el resto de obligaciones de estas bases además de las recogidas en la legislación vigente y cualquier otra obligación que pueda derivarse de la concesión de la subvención.

15. Forma de pago de la subvención.

Las subvenciones aprobadas se abonarán de dos formas.

Cuando la subvención sea inferior a 3.000 euros, se abonará el 60% de la subvención en el plazo de un mes a partir de la aprobación de la misma.

Diru-laguntza 3.000 euro edo handiagoa denean Udalarekin hitzarmena sinatu beharko da. Hitzarmena sinatzen denean diru-laguntzaren %60 ordainduko da. Hitzarmena sinatzeko hilabeteko epe hori igarota diru-laguntzaren onuradunari lepora dakiokkeen arrazoiren bategatik ez balitz hitzarmena sinatuko, elkarrekin diru-laguntzari uko egiten diola ulertuko da.

Diru-laguntzaren beste zatia (%40) jasotzeko, ikasturteko lehiaketa egutegia duten entitateek (2011ko abenduaren 13a baino lehenago) eta urte naturaleko lehiaketa egutegia duten entitateek (2012ko urtarrilaren 15a baino lehen) Bergarako Udaleko Erregistro Orokorrean ondorengo agiriak aurkeztu beharko dituzte:

Eskaera egitean oraindik burutzeko zeuden jardueren eta diruz lagundu diren ekintzen memoria, balantze ekonomikoa eta abar; hau da, oinarri hauen 5. puntuko k) eta l) puntuetan jasotako dokumentazioa.

16. Diru-laguntzen konkurrentzia.

Udalak emandako diru-laguntza bateragarria da helburu berarengatik jasotako beste edozein diru-laguntzarekin.

Hala ere, diru-laguntza ezin izango da izan, beste diru-laguntza batzuekin edo laguntza, diru-sarrerekin batera zein ez, lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

Diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideen zenbatekoa garatu beharreko jardueraren kostua baino handiagoa bada, onuradunak garatutako jardueraren kostutik gora dagoen zenbatekoa itzuli beharko du. Bi administrazio edo gehiagoren diru-laguntzek bat eginez gero, atal honetan aipatzen den sobekina izanez gero, laguntza horietan emandako kopurua banaketa proportzionala eginez aplikatuko da itzulketa.

17. Diru-laguntza aldatzea.

Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira, eta, betiere, laguntza honekin batera beste entitate publiko edo pribatu batzuetatik jasotako diru-laguntzak aldatzen badira, emakidaren erabakia aldatzea gerta daiteke.

18. Diru-laguntza ezeztatuta, diru-itzulketak.

1. Jarraian azaltzen den egoeraren bat gertatuz gero, jasotako diru-kopurua eta diru-laguntza jaso zen unetik itzulketa egin behar dela erabakitzen den unera bitarteko berandutze-interesak itzuli beharko dira:

a. Jasotako funtsak nora bideratu diren frogatu ez izana zehaztutako modu eta epean.

b. Eskatutako dokumentazio guztia ez aurkezteak diru-laguntzarik ez ematea ekarriko du. Bide batez, datuak ezkutatu edota faltsifikatzeak diru-laguntza horiek jasotzeko eskubidea galtzea eragingo du.

c. Diru-laguntza ematean onuradunei ezarritako baldintzak ez betetzea.

d. Diru-laguntzaren helburua erabat edo zati batean ez betetzea.

e. Organo eskumendunek egin beharreko kontrol-ekintzei ezetza ematea edo oztupoak jartzea.

2. Baldin kudeatze-, ikuskatze- eta kontrol-prozeduretan ikusten bada emandako diru-laguntza edo laguntza modu desegokian, jaso, baliatu eta erabili dela adierazten duen zantzurik, horren berri emango da dagokion espedientean, eta beharrezkotzat jotzen diren kautelazko neurriak hartu ahal izango dira.

Si la subvención es de 3.000 euros o superior se debe firmar un convenio con el Ayuntamiento. En el momento de suscribirlo se abonará el 60% de la subvención. Transcurrido el plazo de un mes señalado para la firma del convenio, si por alguna causa imputable a la persona beneficiaria, no se firmase el convenio, se entenderá que la asociación renuncia a la subvención que le ha sido concedida.

Para el cobro del resto de la subvención (40%), se deberán presentar en el Registro General del Ayuntamiento de Bergara antes del 13 de diciembre de 2011 para los casos de entidades con calendario escolar, o en caso de tratarse de entidades con calendario de competición de año natural antes del 15 de enero de 2012, los siguientes documentos:

La memoria de actividades que han sido objeto de subvención y aún estaban por desarrollar en el momento de realizar la solicitud, el balance económico, etc.; es decir, la documentación recogida en los apartados k) y l) del punto 5 de las presentes bases.

16. Concurrencia de subvenciones.

La subvención otorgada por el Ayuntamiento es compatible con cualquier otra subvención recibida para el mismo fin.

Sin embargo, la subvención ni por sí misma ni sumada a otros ingresos nunca podrá ser superior al coste de la actividad subvencionada.

Si la suma de la subvención, ayuda e ingresos o recursos es superior al coste de la actividad a desarrollar, la entidad beneficiaria deberá devolver la cantidad que sobrepase el coste total de la actividad desarrollada. En caso de concurrir subvenciones de dos o más administraciones, y de resultar el excedente que se ha expuesto en este apartado, la devolución se realizará proporcionalmente a las ayudas concedidas por éstas

17. Modificación de la subvención.

La modificación de las condiciones que se han tenido en cuenta al otorgar la subvención, así como la modificación de las ayudas económicas recibidas de otras entidades con el mismo fin, podrán conllevar una modificación en el acuerdo de concesión de la subvención.

18. Revocación de la subvención y devolución de la misma.

1. En caso de que se dé una de las siguientes situaciones, se devolverá el dinero de la subvención y los intereses de demora generados desde el momento de entrega de la subvención hasta el momento en que se resuelve su devolución:

a. No justificar en plazo y forma el destino dado a los fondos recibidos.

b. No presentar toda la documentación requerida supondrá la denegación de la subvención. De la misma manera, ocultar y/o falsificar datos supondrá la pérdida del derecho a recibir la subvención.

c. No cumplir las condiciones impuestas a los beneficiarios al concederles la subvención.

d. No cumplir el objetivo de la subvención en su totalidad o en parte.

e. Impedir o dificultar a los órganos de control sus actuaciones.

2. Si en los procesos de gestión, inspección y control se descubren indicios de que la ayuda concedida se ha recibido o utilizado de forma inadecuada, se incoará un expediente para dar cuenta de ello y se tomarán las medidas cautelares necesarias.

19. Interpretazioa.

Oinarri hauen interpretazio eta garapenean sor daitezkeen zalantzak Alkateak erabakiko ditu, Kirol batzordeak egindako proposamena ikusita.

20. Erregimen juridikoa.

Oinarri hauetan aurreikusi gabe daudenetarako, ondorengo lege eta arautegiak aplikatuko dira:

— Ekainaren 11ko 14/1998 Legea, Euskadiko Kirolarena.

— Azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea.

— Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta 887/2006 Errege Dekretuaz onartutako Arautegia, legea gartzen duena.

Oharra: Eskaerak egiteko inprimakiak eskuragai daude web orrian eta Agorrosin-en.

Bergara, 2011ko ekainaren 28a.—Alkatea. (7559)

19. Interpretación.

Las cuestiones que puedan surgir en la interpretación y desarrollo de estas bases las dilucidará la Alcaldesa, a la vista de la propuestas de la Comisión de Deportes.

20. Régimen jurídico.

En todo lo no previsto en estas bases, se aplicarán las siguientes leyes y reglamentos:

— Ley 14/1998, de 11 de junio, del Deporte del País Vasco.

— Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

— Ley 38/2003 General de Subvenciones y Real Decreto 887/2006, por el que se aprueba el Reglamento de dicha Ley.

Nota: Los impresos están a disposición de los interesados en la página web y en Agorrosin.

Bergara, a 28 de junio de 2011.—El Alcalde. (7559)